

TXORIOERRIKO EUSKARAREN BILAKAERA

Aitziber Argiarro Sangroniz

Gradu amaierako lana

Tutorea: Iñaki Camino

Euskal Ikasketak

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta gaiaren aurkezpena	3
2. Metodologia.....	5
3. Aldagaiak.....	8
3.1. Kontsonanteak.....	8
3.1.1. Asimilazio bustidura ahula.....	9
3.1.2. [j] ahoskera berba euskaldunen hasieran.....	10
3.2. Bokalak.....	12
3.2.1. Dardarkari azkarren aurrean $e > a$	12
3.2.2. <i>-au->-eu-</i> egiteko joera.....	13
3.3. Izenaren morfologia.....	14
3.3.1. Konparazioetarako <i>baizen</i>	14
3.3.2. Erakusleen arteko bereizketa fonologikoa.....	16
3.3.3. Lekuzko aditzondoak: <i>hamen, haor</i>	18
3.3.4. Norabide adlatiboa adierazteko moduak.....	20
3.3.5. Artikulu hurbila.....	21
3.4. Aditzaren morfologia.....	22
3.4.1. <i>Ibili</i> eta <i>izan</i> aditz trinkoen pluralgilea.....	22
3.4.2. Nor-nork 3. pertsona pluraleko aditz-laguntzailearen forma.....	24
3.4.3. Nor-nork 1. pertsonako iraganeko aditz laguntzaileen forma.....	25
3.4.4. Zehar galderaren forma.....	27
3.5. Sintaxia.....	28
3.5.1. <i>-keran</i>	28
3.6. Lexikoa.....	29
3.6.1. <i>Usigi</i> ('haginka egin').....	29
3.6.2. <i>Koiu</i> ('hartu')	30
4. Ondorioak.....	30
Erreferentzia bibliografikoak.....	31

SARRERA ETA GAIAREN AURKEZPENA

Txorierriko euskarak baditu berezkoak diren zenbait ezaugarri, fonologiatik hasi eta lexikoraino doazenak. Halaber, ezaugarri bereizgarri horietako zenbait Koldo Zuazok Mendebaldeko euskalkia deitu zuenaren barruan egotetik datozkio, edo bestela esanda, beste hizkera batzuekin dituen ezaugarri komunek eraman dute berau aipaturiko euskalkian sailkatzera. Azken ezaugarri komun hauek nire azterbidetik kanpo geratzen badira ere, hauen berri ematea zilegi delakoan nago; batez ere, sakontasunetan ibiltzeko abiapunturik egokiena orokortasunei erreparatzea delako.

Koldo Zuazoren hitzetan honako eremu hau hartzen du Mendebaldeko euskalki izenaz ezagutzen denak: “Bizkaia, Deba ibar gehiena eta Arabako Aramaio eta Legutio agertzen dira gaur egun euskalki honetan. Dena dela, mendebaldeko ezaugarri batzuek eremu zabalagoa dute” (Zuazo, K. 2014; 163).



1. irudia: Mendebaldeko euskarak hartzen duen eremua, horren barruko azpieuskalkien bereizketarekin

Mendebaldeko euskalkiak bi azpieuskalki eta zazpi hizkera bereizi ditu. Azpieuskalkiek *sartaldea* eta *sortaldea* izenak hartu dituzte. Sartaldekoko azpieuskalki hori bi hizkera multzo nagusitan bereizten da: *ipar-sartaldekkoa* eta *hego-sartaldekkoa*. Eta Ipar-sartaldekokoaren barruan hiru hizkera daude: Uribe Kostakoa, Mungialdekkoa eta Txorierrikoa. Zehaztu gabe utzi ditudan beste azpieuskalkia, hizkera multzoak eta

hizkerak nire ikerlerrotik kanpo geratzen dira, beraz hauei erreparatzeko beharrik ere ez daukagu. Horrenbestez, argi gera dadin, honakoa litzateke Txorierriko euskara barnebiltzen duten multzo handiagoen hierarkia:

Mendebaldeko euskalkia → Sartaldeko azpieuskalkia → Ipar-sartaldeko hizkera multzoa → Txorierriko hizkera

Mendebaldeko euskalkiaren barruan dauden hizkerek ezaugarri komunak dituztela dakigun legez, ulertzekoa da Sartaldeko azpieuskalkiko hizkerek Sortaldeko hizkerek ez dituzten zenbait ezaugarri komun izango dituztela; guztiak nahitaez Txorierriko euskaran agertuko ez diren arren. Errepara diezaiegun bada, Koldo Zuazok (2014; 182-186) sartaldeko ezaugarritzat jo zituen horiei eta beraz nire azterketan ere agertzea espero beharko nituzkeenei:

- 1- *i* eta *u* bokalek eraginda, $a > e$ egitea indartsuagoa da sartaldean, adibidez: *geuges* < *geugaz*
- 2- Hiatoetan, sartaldean, ohikoak dira honako bilakaera hauek: $/e + a/ > ia$ & ie eta $-x/-dx-$ epentesiak sartzea. Lehena Txorierriko Larrabetzu eta Lezama herrietan gauzatzen da. Epentesia, aldiz, Mungialdean eta Nerbioi Ibarrean aurki daiteke.
- 3- Hitz hasieran *y-* dago sartaldeko eremu zabalean, edo *dx-*. Txorierrin, *y-* gailentzen da.
- 4- Iraganaldiko adizki trinkoak oso galduta daude sartaldean.
- 5- Bizkaiko mendebaldean, ohikoa da *-rik* morfema zaharra denbora balioa daukanean: *Atzorik ona* ‘atzotik hona’.
- 6- Lexikoan ere, sartaldeak baditu hitz bereizgarri batzuk: *antza* “dirudienez”; *artez* “zuzen”; *beilegi* “kolore horia”; *belu* “berandu”; *ezpabe (re)* “bestela”; *firu* “hari”; *jagon* “zaindu”; *kadera* “hanka”; *sano* “oso, guztiz” ...

Lan berean aipatzen duen moduan, kontuan hartu beharrekoa da, orain arte oinarri izan dudak adituak denbora luzean gainerako euskalkietatik aldentuta ibili izanari leporatzen diola Mendebaldeko euskalkiak duen ezaugarri bereizgarri kopuru handia. Baina beste aldetik, onartzen du ezaugarri bereizgarri horietarik gehienak euskalkiko eremu zabalean agertzea euskalkiaren barneko batasunaren isla izan

daitekeela (Zuazo, K. 2014; 187). Alegia, gainerako euskalkietatik urrun ibili izanako eman dizkio ezaugarri bereizgarriak, baina euskalkiaren beraren barneko batasunak ezaugarriak haren eremu osoan agertzea dakar.

Ikuspegi orokor honen ikusmira zehatz eta zorrotzagoa eskaintzen du Iñaki Gaminde adituak bere *Bizkaian zehar: euskararen ikuspegi orokorra* (2007) artikuluan. Izenburuak kontrakoa iradoki dezakeen arren, Bizkaiko ezaugarri nagusien eta hain nagusiak ez direnen herrikako sailkapen kualitatibo eta kuantitatiboa eskaintzen ditu. Txorierriko euskararen bizitoki diren herriak ere ageri dira ezaugarri linguistiko bereizketak agertzeko erabiltzen dituen taula anitzetan. Espero beharrekoa da, beraz, azterketa honek ere emaitza bertsuak edo antzekoak ematea. Edo ez ... Errepara diezaiozun Gamindek bere artikulua sarreran dioen honi:

(...) herri hizkerak aztertzen ditugunean, hiru belaunaldi, edo gurago bada hiru sasoi, agertzen zaizkigu. Batetik gerra aurrekoak dauzkagu; (...) Gure informatzaile gehienak 40. urtetik atzera jaiotakoak izan dira. Bigarren belaunaldia 40tik 75era artean jaiotakoena da. (...) Azkenik, 76tik gorakoak dauzkagu, hauek etxeko transmisio ahula eduki duten arren, hizkuntzaren loraldian jaio dira (Gaminde, I. 2007; 4)

Ezin aipatu gabe utzi, Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara* lanean egindako ekarpen handiak ere zeri eutsi eman didala. *Geure berbak geureak direzelako* lelopean argi jasotzen dituzte Txorierriko berezitasun sintaktiko eta lexikoak batik bat.

Esan daiteke, beraz, Txorierriko hizkera aski ikertua dagoela eta aski zehaztuak dituela bere berezitasun eta ezaugarriak. Ikerlan honen xedea, ordea, berezitasun eta ezaugarrien lekukotzetik haratago dago; alegia, hizkeraren lagin bat hartu eta aurreko ikerketek erakusten dutenarekiko bilakaera neurtu eta ikertzeko asmoa daukat.

Hizkeraren beraren bilakaerari erreparatzeaz gain, euskara batuak belaunaldi gazteengan izan duen edo izan ez duen eragina ere aintzat hartzekoa da. Hau izan baitaiteke hizkeraren bilakaeraren iturrietako bat, erdararen esku hartzea inondik inora ere alde batera utzi gabe, noski.

METODOLOGIA

Txorierriko euskara osatzen duten herrietako jatorrizko hiztunei egindako grabaketak izan dira lan honetarako baliabide pisutsuenak. Hala ere, onartu beharra dago, aipaturiko Gaminderen artikuluak non bilatu eta zeren bila joan eman didala eta hori baliatuz aztertu nahi izan ditudan ezaugarriak azaleratzen lagunduko lidakeen galdetegia prestatu dudala.

Hiztunak Txorierrin jaioak izan dira eta betidanik Txorierrin bizi izandakoak. Gurasoak ere herrikoak dira kasu gehienetan. Hala, Gamindek bezalaxe, hiru belaunaldi bereizi ditut bertako euskararen belaunaldiz belaunaldiko bilakaera aztertu ahal izateko. Honakoak izan dira hiztunen ezaugarriak:

Lehenengo belaunaldikoak

Lehenengo hiztuna Erandioko Goiherri auzoko 82 urteko gizona da; jaiotzetik baserri berean bizi izandakoa. Haren amaren baserria zen orain berea dena; beraz, ama ere Erandiokoa izan zuen. Aita, aldiz, Loiukoa izan zen (Txorierrikoa).

Bigarren hiztuna Larrabetzuko 83 urteko andrea da; Bilbon jaio baina handik hilabete gutxira Larrabetzura joandakoa. Gurasoak ere Larrabetzukoak zituen, beraz bertako euskara jaso zuen jaiotzetik bertatik.

Hirugarren hiztuna Zamudioko 85 urteko andrea da; Zamudion jaiotakoa eta sasoi batean Derion ibilitakoa etxe bateko neskame lanetan. Gurasoak Txorierrikoak zituen, ama Lezamakoa eta aita Deriokoa, nahiz eta amak Fikan eman zituen haren gurasoak hil osteko 10 urte.

Bigarren belaunaldikoak

Lehenengo hiztuna Erandioko Goiherri auzoko 62 urteko emakumea da; jaiotzetik baserri berean bizi izandakoa. Aitaren baserrian bizi da eta ama alboko baserrian jaio zen; guraso biak ditu, beraz, Erandiokoa.

Bigarren hiztuna Larrabetzuko 62 urteko emakumea da; hogeitun urte izan arte Larrabetzuko Legine auzoko baserrian bizi izan zen; gerora, herrira jaitsi eta bertan bizi izan da. Guraso biak hiztuna jaio zeneko baserria zegoen auzo berekoak zituen; beraz, Larrabetzuko euskara jaso zuen.

Hirugarren hiztuna Zamudioko 59 urteko gizona da. Guraso zamudioztarrak ditu eta herrian bizi izan da betidanik. Hala ere, eta jakin min modura, onartzen du haren belaunaldiak eta ondorengoek inguruko herri zein eskualdeekin harreman gehiago izateak, euskararen bilakaera eragin duela; berak hala ikusita eta atzemandu.

Hirugarren belaunaldikoak

Lehenengo hiztuna Erandioko 46 urteko andrea da; Erandioko Goiherri auzoko baserri batean jaio zen. Guraso erandioztarrak ditu eta baserri horretako ingurumarietan jaso du haren hizkera. Egun Erandio Landa (edo Erandiogoikoa) auzoan bizi da, mendialdetik herrirantz egin du baina jasotako euskara bera egiten die haren seme-alabei (berak hala esanda).

Bigarren hiztuna Larrabetzuko 40 urteko gizona da; guraso eta gurasoen guraso Larrabetzuarren seme eta iloba, hurrenez hurren. Etxeko euskara darabil eta Larrabetzuko euskararen ezaugarri eta berezitasunen ikerketa “etxeakoa” eginda dauka. Aitortu beharra daukat, balitekeela hiztuna euskalkiaren ezaugarrien gainean ikertzen ibilitakoa izateak emaitzen naturaltasuna, berezitasuna eta bat-batekotasuna lauso zezakeen arriskua sumatu nuela.

Hirugarren hiztuna Zamudioko 44 urteko andrea da; Bilbon jaio zen, guraso Txorierritarren etxe batean. Hamabi urte zituela, Zamudiora joan ziren bizitzera eta ordutik bertan bizi da. Euskara izan da haren etxeko hizkuntza, beti.

Hautatutako herrien kokapen geografikoari erreparatuz gero, ohartuko gara hiztunak Txorierriko mutur banatako herrietakoak (Erandio eta Larrabetzu) eta erdi-inguruko herriak (Zamudio) direla. Hala, Txorierriko joera orokorra zein izan daitekeen ikus genezake. Hala ere, aintzat hartu behar dugu muturretako herri bakoitza (Erandio, Larrabetzu) azpi-hizkera batetik elikatzen dela eta horrek bataren eta bestearen arteko aldea nabarmena izatea dakarrela. Hala ere, ezin uka daiteke, erakusgarri egokia ere badela.

Itzulpen bidezko elkarrizketa bideratuak izan dira grabaketan mami nagusia. Elkarrizketa librean ere ibili naiz; baina, elkarrizketa libretik hizkera honen izaera egiazkoagoa jaso nezakeela uste dudana arren, erdieste espero nuen gauzatze guztiz

bestelakoak jasotzea gerta lekidakeelakoan, aztergai ditudan aldagaiei buruzko informazio zuzena eman liezadaketen gauzatzeen bila jo dut zuzenago.

Kontuan hartu beharrekoa da, lekukoa beretzat artifiziale den testuinguru batean egoteak, eta ikertzailearen presentziak berak ere, hiztuna eguneroko berbaeratik aldentzea ekar lezakeela. Behatzaileak ahalik eta hizkera naturalena jaso nahi horri, berez naturala ez den egoera batean, *behatzailearen paradoxa* (“the observer’s paradox”) izena ezarri zion Labov-ek (1975: 106) eta geroztik arazo edo kezka ezaguna da soziolinguistikan edo dialektologian (*apud.* Ensunza, A. 2015; 32).

Horri aurre egiteko erabili ditut, hain zuzen, era ezberdinetako ariketak (elkarrizketa librea eta itzulpen zuzenak). Horrez gain, hiztunentzat erosoak izan daitezkeen tokiak bilatu ditut; egoerak berak sor dezakeen ezerosotasuna etxean egoteak ematen duen erosotasunaz estaltzeko.

Lanean zehar, hiztunek itzulpen bidezko ariketa bideratuan emandako erantzunak jaso ditut eta unean-unean aztergai dudan ezaugarriak solasaldi librean eman dituen lekukotasunak bildu ditut. Hizketaldi libreko lekukotasunak ehunekoetan eman ditut gehienetan (gauzatzeak urriegiak direnean salbu), aztergai den ezaugarria zenbatetan betetzen den jakiteko, eta beraz, ezaugarria zein errotuta dagoen antzemateko.

Hala ere, gogoan izan behar dugu ehuneko bidez ematen diren datuak ez direla erkaketarako tresna erabat fidagarriak; izan ere, hiztun batetik bestera ezaugarri bakoitzaren gauzatze kopurua aldatu egiten da. Esaterako, hiztunek bustidurarik ez egitea espero badugu (ikus. 9. or), bustidura egin ohi den testuinguruan bustidurarik agertzen ez den lekukotasun bakoitza hartuko du bustidura-ezari dagokion ehunekoak. Kontua da, hiztun batek, solasaldi librean, testuinguru horretan sar daitezkeen hitz bi baino esaten ez baditu eta bakar batean ere ez badu bustidurarik egiten, %100 izango da haren bustidurarik gabeko emaitza. Hurrengo hiztunak, aldiz, testuinguru bereko ehun hitz ematen baditu eta ehun horietatik bitan bustidura egiten badu, %98 izango da haren jardunaren emaitza. Ikus dezakezuen, lehen egoerak ezaugarriaren iraunkortasuna erakusten du, bigarrenak iradoki dezakeen bilakaera zantzuen aldean, informazio kuantitatiboari bagagozkio; hala ere, datu kuantitatibo hutsek ez dute ezaugarriaren ikuspegi osoa biltzen.

Horrenbestez, ehunekoak aztergai dudan ezaugarriaren gauzapen librea ugaria (edo behintzat hiztun guztiengan sarri agertzen dena) denetan baino ez ditut eman. Izan ere, ezaugarri batzuk nekez aurkitzen dira itzulpen bidezko ariketa bideratutik kanpo.

ALDAGAIAK

Kontsonanteak

1. Asimilazio bustidura ahula

Txorierrin ahula da asimilazio bustidura. l eta n baizik ez dira bustitzen, baina horiek ere oso ingurune jakin batean: j bokalardiaren eta beste bokal baten artean daudenean; j_V (Zuazo, K. & Goiti, U., 2016; 25).

Gamindek (2007) bustidura egiten duten eta egiten ez duten Bizkaiko herriak sailkatu zituen taula bateko zutabe banatan. Bustidura egiten zuten herriak \tilde{n} multzoan sartu zituen eta bustidura egiten ez zutenak n multzoan. Aipatzekoa da, Txorierriko euskalkiak hartzen dituen herri guztiak n multzoan sartu zituela ikertzaileak.

Beraz, espero duguna zera da: gure lekukotasunetan ere bustidura gutxi aurkitzea.

Asimilazio ahula frogatzeko perpaus bi itzuli behar izan dute hiztunek.

El chico que vino ayer era muy alto.

Antiguamente comiamos mas pan.

Lehenengo perpausean, *mutil* hitzaren gauzapena izan nuen aztergai; bigarrean, berriz, *antzina* hitzarena.

Emaitzak honakoak izan dira belaunaldiz belaunaldi:

- Lehenengo belaunaldia: /mutile/ /atsine/ (Erandio); /mutile/ /atsine/ (Larrabetzu); /mutile/ /atsine/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /muti λ a/ /antsijne/ (Erandio); /mutile/ (Larrabetzu); /mutile/ /atsijne/ (Zamudio). Bigarren belaunaldiko larrabetzuarrak, *antzina* espero genuen tokian *lehen* erabili du; beraz, ez da baliagarria asimilazio bustidura aztertzeko.

- Hirugarren belaunaldia: /mutile/ /atsine/ (Erandio); /mutile/ /atsijne/ (Larrabetzu); /mutile/ /atsija/.

Itzulpen bideratuz haraindi, elkarrizketa libreak ere ematen digu bustiduraz informaziorik. Datuok ehunekotan emango ditut, belaunaldiz belaunaldi eta herrika sailkatuta:

<u>BUSTIDURARIK</u> <u>EZ</u>	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	%99	%100	%100
2. belaunaldia	%0	%50	%87
3. belaunaldia	%97	%34	%62

1. Taula: Bustiduraren gauzatzea

Erandioko lehen belaunaldiko hiztunak ez du bustidurarik egiten, berba bitan salbu: [baño] (konparazio-elementua) eta [iñon]. Lehenengoari dagokionez, pentsatzekoa da hiztunak forma hori lexikalizatu egin duela, nolabait; beraz, bere horretan erabiltzen du; alegia, hitza hizkeraren ezaugarriei egokitu gabe. Bigarren hitzari dagokionez, harritzekoa da, lekuzko adberbioa baino ez duelako bustiduraz erabiltzen; gainerako galdetzaileak bustidurarik gabe erabiltzen ditu: [inoz] [inor].

Gainerako belaunaldietan, ikus daiteke bustidurarik ez egiteko joera beheranzkoa dela nahiz eta jaitsiera hori batere erregularra ez den herri batetik bestera. Erregularitasunari gagozkiolarik, Zamudion eta Larrabetzun, beheranzko joera erregularra da belaunaldi batetik bestera; Erandioko lelukotasunek ematen dute atentzioa: bigarren belaunaldiko hiztunak bustidura egiten du, beti. Gorago aipatu bezala, euskara batuaren eragin handia dauka hiztun horrek; hain handia ezen Txorierriko hizkeraren ezaugarri hau ezabatua baitu.

2. [j] ahoskera euskal berben hasieran

Txorierrin, [j] ahoskera dago berba euskaldunen hasieran. Salbuespen gutxi batzuk daude (...) Erdaratik hartutako maileguetan [x] ahoskatzen da gehienetan (Zuazo, K. & Goiti, U., 2016; 25).

Gamindek (2007) aditz partizipioen “j”ren ebakerak aztertuz erreparatu zion ezaugarri honi. Hiru ebakera bereizi zituen: herskari sabaikari ahostuna (“y”), afrikatu auresabaikari ahostuna (“dx”) eta frikari belare ahoskabea (“j”). Haren emaitzetan, Txorierriko euskarak hartzen dituen herri guztiak “y” ezaugarriaren barruan kokatu zituen. Espero izatekoa da, beraz, jaso ditudan lekukotasunetan herskari sabaikari ahostuna nagusi izatea.

Honakoak dira hiztunek ezaugarri hau aztertzeko itzuli behar izan dituzten perpausak:

*Para **saber** hay que estudiar.*

***Nació** el año pasado.*

*La **jente** está preocupada.*

Lehen esaldi bietan hiztunek euskal jatorria duten hitzen hasieran [j] edo [x] ahoskera darabilten jakitea da xede nagusia. Hirugarrenarekin, aldiz, erdaratik hartutako maileguekin hiztunek duten joera aztertzea da helburu.

Emaitzak honakoak dira, belaunaldiz belaunaldi:

- Lehenengo belaunaldia: /yakiteko/ /yαιο/ /xente/ (Erandio); /yakiteko/ /yαιο/ /xentia/ (Larrabetzu); /yakiteko/ /yαιο/ /jente/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /yakiteko/ /xaio/ /xente/ (Erandio); /yakiteko/ /yαιο/ /yentea/ (Larrabetzu); /yakiteko/ /yαιο/ /xente/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /yakiteko/ /xaio/ /xente/ (Erandio); /yakiteko/ /yαιο/ /xente/ (Larrabetzu); /yakiteko/ /yαιο/ /yente/ (Zamudio).

Itzulpen bideratutik kanpoko solasaldian jasotako informazioak honako ehunekoa uzten du herri bakoitzeko hiztun bakoitzaren [j] ahoskeraren erabileran:

[j] <u>HOTSA</u>	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	%98	%100	%100
2. belaunaldia	%63	%89	%98
3. belaunaldia	%100	%96	%91

2. Taula. [j] hotsaren erabilera hitz hasieran

Ezaugarri honek nahiko egonkor jarraitzen du belaunaldi batetik besterako jauzian, aztertutako hiru herrietan. Hala ere, Euskaltzaindiak euskara baturako hots honen gainean ematen duen arauak nolabaiteko eragina izan lezakeela pentsatzea lekuz kanpo ez legokeelakoan nago. Hona akademiak aztergai dugun hotsaz dioena:

<j> letraren euskarazko ahoskera oinarrizkoa da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Hala ere eta beraz: Hitz hasieran ahoskatuko da (hala nola jateko *yateko*, jokalariak *yokalariak*). Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*). (Euskaltzaindia, 87. araua)

Jente erdal mailegua da [x] ahoskera eman duen hitz bakarrenetakoa hiztun guztien jardunean. Beraz, Euskaltzaindiaren arabera [x] belarraz ahoska daitezkeen hitzak albo batera utzita, euskal jatorriko hitzetan [y] da nagusi; maileguetan, [x]ren erabilera maizago aurki daiteke, aldiz.

Bokalak

1. Dardarkariaren aurrean $e > a$

Badira mendebaldean *r* dardarkariaren aurrean $e > a$ egiten duten berbak. (...) Larrabetzuko bizilagunei *akarrak* ‘akerrak’ ezizena ematen zaie eta Erandion *Akarlanda* toponimoa dago (Zuako, K & Goiti, U., 2016; 23).

Honakoak dira, ezaugarri honen erabilera ikertzeko, hiztunek itzuli behar izan dituzten perpausak:

No te enfades conmigo.

El libro estaba en una esquina

Le agarró de la cintura.

Peio apareció de repente.

Esto es nuevo.

Honakoak izan dira belaunaldiz belaunaldi lortu diren emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /asaratu/ /garitik/ /ayartu/ /bari/ (Erandio); /asaratu/ /garitik/ /ayertu/ /bari/ (Larrabetzu); /asaratu/ /baster/ /garitik/ /agyartu/ /bari/ (Zamudio). Erandioko eta Larrabetzuko hiztunek *eskine* (bide batez, bustidurarik gabe) erabili zuten bigarren perpausaren itzulpenean; ez dakigu beraz, *bazter* edo *baztar* erabiltzen duten. Gainera, hizketaldi librean ez du hiztunetako batek ere hitz hori erabili. Bigarren galdetegi batean, *baster* edo *bastar* erabiltzen ote duten galdegin nien Erandioko eta Larrabetzuko hiztunei; Erandiokoak, /baster/ erabiltzen duela esan zidan, Larrabetzukoaren erantzuna, aldiz, /bastar/ izan zen. Hala ere, kontuan hartu beharra dago hitz bakarra itzuli beharrak are gehiago lauso ditzakeela bilatzen den naturaltasuna eta hizkeraren berezkotasuna.
- Bigarren belaunaldia: /asaratu/ /baster/ /geritik/ /ayertu/ /beria/ (Erandio); /asaratu/ /garitik/ /ayartu/ /barie/ (Larrabetzu); /asaratu/ /garitik/ /ayertu/ /bari/ (Zamudio). Larrabetzuko eta Zamudioko hiztunek *eskiñe* eta *iskiña* hitzak erabili dituzte, hurrenez hurren, bigarren perpausaren itzulpenean.
- Hirugarren belaunaldia: /asaratu/ /bastar/ /garitik/ /ayertu/ /bari/ (Erandio); /asaratu/ /baster/ /garitik/ /ayartu/ /barie/ (Larrabetzu); /asaratu/ /garitik/ /ayertu/ /bari/ (Zamudio). Zamudioko hiztunak *eskiñe* hitza erabili du bigarren perpausaren itzulpenean.

Itzulpen bideratutik kanpoko solasaldian jasotako informazioak honako ehunekoa uzten du herri bakoitzeko hiztun bakoitzaren $e > a$ txandakatzearen erabileran:

$e > a$ TXANDAKATZEA	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	%100	%100	%97
2. belaunaldia	%54	%92	%93
3. belaunaldia	%100	%98	%88

3. Taula. $e > a$ txandakatzea

Ikus daitekeenez, joera beheranzkoa den arren, ezaugarria nahiko egonkorra da, oro har.

2. -au- > -eu- egiteko joera

Ipar-sartaldeko alderdi batean gertatzen da: Mungialdean, Mungia gehienez eta Txorierriko ekialdean, Derio eta Larrabetzu bitartean. Txorierriko mendebaldean, aldaketa hori ez da ohikoa (Zuazo, K & Goiti, U., 2016; 21).

Adibide bi baino ez dituzte aipatzen adituek Txorierriko mendebaldeko *-au->-eu-* txandakatzerako: *eseun* (*ezagun > ezaun > ezeun*) eta *eduki*-ren adizkierak (*daukat > deukot > dekot*). Azken salbuespen hori, Bizkai osoko ezaugarria da.

Gamindek (2007) ere Txorierriko Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu herriak sailkatu zituen *-au->-eu-* ezaugarria duten herrien multzoan; eta Erandio, Leioa, Loiu eta Sondika *-au-* bere horretan darabilten herrien multzoan.

Kontuan hartuta, lan honetako lekukotasunak biltzeko baliatu ditugun hiztunak Erandiokoak, Larrabetzukoak eta Zamudiokoak direla, besteak beste, emaitza desberdinak jaso beharko genituzke; herri bakoitzeko abiapuntuko ezaugarria desberdina delako: Larrabetzun, *-au->-eu-* gertatzea espero dugu; Erandion, ez.

Honakoak dira, ezaugarri honen erabilera ikertzeko, hiztunek itzuli behar izan dituzten perpausak:

Delante de la casa hay un lobo.

Tiene mucho dinero pero no tiene amigos.

Honakoak izan dira belaunaldiz belaunaldi lortu diren emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /auren/ /deko/ /esteko/ (Erandio); /eurian/ /deko/ /esteuko/ (Larrabetzu); /euren/ /deko/ /esteko/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /aurean/ /dauka/ /esteko/ (Erandio); /aurian/ /deuko/ /esteko/ (Larrabetzu); /auren/ /deko/ /esteko/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /euren/ /deko/ /esteko/ (Erandio); /eurian/ /dauko/ /esteko/ (Larrabetzu); /aurean/ /deko/ /esteko/ (Zamudio).

Ikus daitekeenez, lexikoan Erandioko hiztunek ez dute *-eu->-au-* egiten, hirugarren belaunaldikoak salbu, baina aditzean sistematikoki egiten dute. Zamudion eta Larrabetzun, aditzean sistematikoa dela esan daiteke, espero den legez (harritzekoa hirugarren belaunaldiko Larrabetzuko hiztunak *dauko* eman izana), eta lexikoan egon badagoen arren, txandakatzea egiten ez duenik ere bada.

Izenaren morfologia

1. Konparazioetako “baizen”

Txorierriko herri batzuetan “*baino*” beharreen “*baizen*” erabiltzen da, nahiz herri gehienetan biak erabiltzen diren (Gaminde, I. 2007; 69).

Koldo Zuazo eta Urtzi Goitiren (2016) liburuak, ez du konparazioaz ezer esaten. Hala ere, honakoa dakar liburuaren amaieran ageri den *Ipar-sartaldeko hiztegia* atalean: “**Baizen** (> *baixen*) 1. *Baino*. Txorierri gehienean erabiltzen da” (Zuazo, K & Goiti, U., 2016; 74).

Ezaugarri hau aztertzea erabaki nuen, konparaziorako *baino* zeinen hedatua dagoen ikusita, bilakaeraren zantzuren bat eman ziezadakeelakoan egon nintzelako.

Hauexek dira hiztunek itzuli behar izan dituzten esaldiak:

*Yo soy mas joven **que** tu.*

*Esto no se hace rápido, **sino** lento.*

Honakoak izan dira belaunaldiz belaunaldi lortu diren emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /baño/ /baño/ (Erandio); /baño/ /baño/ (Larrabetzu); /baño/ /baño/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /baño/ /baisik/ (Erandio); /baño/ /baño/ (Larrabetzu); /baño/ /baño/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /baño/ /baizik/ (Erandio); baño/ /baño/ (Larrabetzu); /baño/ /baizik/ (Zamudio).

Ez dut *baizen* konparatzailearen lekukotasunik jaso. *Baino* da Txorierriko hiztunek lehenesten dutena, eta batuzko *baizik* ere bere lekua egiten ari da.

Hala ere, Labayru Hiztegiak (bizkaiera jaso - gaztelania) beste erabilera bat ematen dio *baizen* hitzari (batuzko *bezain*):

baizen 1 (bizk) 1 mend. konp.

tan... como....

- Adjektibo zein adberbioakaz.

Ez dago zu baizen galantik: No hay otra persona tan hermosa como tú. (bizk)

Ez dago inor gu baizen ondo bizi danik: Nadie vive tan bien como nosotros. (bizk)

Testuinguru horren lekukotasun gutxi aurkitu ditut egindako elkarrizketetako solas librean: Erandioko lehenengo belaunaldiko hiztunarena eta Larrabetzuko hirugarren belaunaldiko hiztunarena. Biek ala biek *beste* eta *bestekoa* erabili dute, hurrenez hurren, *baizen* espero zitekeen tokian.

2. Erakusleen arteko bereizketa fonologikoa

Ahozkoan erakusle pluralak singularretatik bereizteko modu bi daude; morfologikoki “*onek/oneik-onik, orrek/orreik-orrik*” edo fonologikoki azentuaren bidez “*onék/ónek, orrék/órrek*” (Gaminde, I. 2007; 71).

Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik (2016) honakoa diote azentuaz eta, zehatzago, erakusleetako azentuaz: Azentu bereizgarriak berben singularra eta plurala, batetik; eta esangura banako berba bikoteak, bestetik, bereizten ditu.

Adituak bereizketa multzo bitan banatu zituen Bizkaiko herriak, erakusleen arteko bereizketa egiteko duten moduaren arabera. Txorierriko ia herri guztiak fonologikoki bereizten diren herrien multzoan sartu zituen; denak, Larrabetzu izan ezik.

Ezaugarri horrek nolako bilakaera izan duen jakiteko, honako perpaus hauek itzuli behar izan dituzte hiztunek.

Ese chico ha traído un balón y esas chicas se lo han robado.

Estos jóvenes no saben hacer nada.

Este perro le ha mordido la oreja al dueño.

Honakoak izan dira belaunaldiz belaunaldi lortu diren emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /orrék mutilek/ /-/ /ónek gastek/ /onék tʃakurek/ (Erandio); /orrék mutilek/ /órrek neskek/ /ónek gasteak/ /onék tʃakurek/ (Larrabetzu); /orrék mutilek/ /órrek neskak/ /ónek gasteak/ /onék tʃakurek/ (Zamudio). Erandioko hiztunak *esas chicas* izen sintagmaren itzulpena *enbrak* hitzaz egin du; beraz, ez du aztergai den erakuslerik erabili.
- Bigarren belaunaldia: /mutil orrék/ /neska oiek/ /gaste ónek/ /tʃakur ónek/ (Erandio); /orrék mutilek/ /órrek neskak/ /ónek gasteak/ /onék tʃakurek/ (Larrabetzu); /orrék mutilek/ /órrek neskek/ /ónek gasteak/ /onék tʃakurek/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /mutil orrék/ /órrek neskek/ /ónek gastek/ /tʃakur onék/ (Erandio); /orrék mutilek/ /órrek neskak/ /ónek gastiek/ /onék tʃakurek/ (Larrabetzu); /orrék mutilek/ /neska órrek/ /ónek gasteak/ /onék tʃakurek/.

Lehenengo perpausean, bigarren graduko erakusle plural zein singularra ageri zaizkigu. Bigarreanean eta hirugarreanean, aldiz, lehenengo graduko erakusle plural eta singularra, hurrenez hurren. Gaminderen (2007) ikerketaren arabera, espero dugu azentua azken silaban jartzea singularraz mintzo direnean; eta, lehen silaban, pluralaz dabilzanean.

Beraz, adituaren ikerketaren arabera, honakoak dira itzulpen bidezko lekukotasunek eman behar lizkidaketen emaitzak: *Onék mutilek (...)* *órrek neskak (...)*. *Ónek gazteak (...)*. *Onék txakurrek (...)*.

Ikus daitekeenez, emaitzak espero zitekeenetik gertu daude. Akaso, Erandioko bigarren belaunaldiko lekukotasuna da espero zenetik urrunen ibili dena; batuzko erakuslea erabili du *esas chicas* itzultzerakoan, horrek, Txorierriko erakusle eredua ez erabiltzeaz gain, zenbaki bereizketa modu morfologikoan egitea dakar. Gainera, eta bereizgarri gisara baino ez, hiztun hau izan da erakuslea izenaren ostean jarri duen bakarra (hirugarren belaunaldiko Erandioko hiztunaren *Esos chicos* izen sintagmaren itzulpena salbu).

Itzulpen bideratutik kanpoko elkarrizketan erakusleen erabilera oso ugaria da, baina emaitzak nahiko antzekoak dira itzulpen bidezko ariketan lortutakoekin erkatuta. Ematen du ezaugarri hori nahiko errotuta dagoela. Ikus ditzagun jarduera libreko erakusleen bereizketa fonologikoaren lekukotasunek eman dituzten ehunekoak:

ERAKUSLEEN BEREIZKETA FONOLOGIKOA	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	% 100	% 100	% 100
2. belaunaldia	% 66	% 100	% 100
3. belaunaldia	% 100	% 100	% 100

4. taula. Erakusleen bereizketa fonologikoa

Taulan ageri diren ehunekoak hiztunek “espero zitekeena” bete duten gauzatzen isla dira. Hau da, ehuneko hauen barruan sartzen dira erakusle singularra erabili behar eta azentua azken silaban jarri duteneko lekukotasunak, edo erakusle plurala erabili behar eta azentua lehen silaban jarri dutenekoak. %100era heltzeko falta den ehunekoa batuzko erakusleen isla da; esan nahi dut ez dela aurreikusitakoaren edo “araututakoaren” kontrako bereizgarri fonologikorik erabili.

Harritzekoa da, Larrabetzuko hiztunen kasua. Gaminderen (2007) ikerketaren arabera, Larrabetzuko hiztunek bereizketa morfologikoa egiten dute, erakusle singularren eta pluralen artean. Jasotako lekukotasunak (bai solasaldi librekoak eta bai itzulpen bidezko ariketakoak), baina, guztiz bestelakoak dira. Hara solasaldi librean Larrabetzuko hiztunek eman dituzten erakusle pluralen lekukotasunak:

- Lehenengo belaunaldia: /órrek geusek/ /árek sasoyak/ ...
- Bigarren belaunaldia: /árek eutoßusek/ /órrek lekuek/ ...
- Hirugarren belaunaldia: /órrek irurek/ ...

Harritzekoa dena ez da hirugarren belaunaldian bereizketa morfologikorik erabiltzen ez dela ikustea, lehen bi belaunaldikoen hizketaldian bereizketa morfologikoaren lekukotasun bakar bat aurkitu ez izana baizik. Izan ere, lehenengo belaunaldi bietako hiztunak Gaminderen (2007) ikerketako hiztun izan zitezkeen. Hala, pentsatzekoa da erakusleen arteko zenbaki-bereizketa erabat neutraldu gabe dagoela, hau da bereizketa fonologikoa eta morfologikoa lehian daudela, Larrabetzun orain; eta, dudarik gabe, bilakaerak belaunaldi zaharragokoei ere eragiten diela.

3. Lekuzko aditzondoak: *hamen, haor...*

Iñaki Gamindek (2007) “-a” gehitzen duten aditzondoak non lekukotzen diren zehaztu zuen “a bai” eta “a ez” deituriko multzoetan bereiziz Bizkaiko herri guztiak. Hala, lehen multzoan dauden herrietako hizkeretan “a-” gehitzen duten erakusleak espero ditugu; eta, bigarren multzoan, aldiz, “a-” gehitzen ez dutenak. Jarraian jarri dudan taulan zehazten dut zein den batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna:

“A-” GEHITU GABE	“A-” GEHITUZ
Hemen	Hamen
Hor	Haor
Han	Haan
Honantz	Haonantz
Horraino	Haorraino

5. taula. “a-” gehitzen duten erakusleen eta gehitzen ez dutenen arteko ezberdintasuna

Adituak “a bai” taldean sartu zituen Txorierriko herri guztiak. Hala ere, onartzen du “a-” gehitzen duten aditzondoak galduz doazela eta belaunaldi gazteetan murriztuz doazela. Gogora ekar dezagun, bere ikerketako hiztunen belaunaldirik gazteena ikerketa honetako hiztunen erdiko belaunaldia litzatekeela, gutxi gorabehera. Horrek “a-” gehitzen duten lekuzko aditzondoaren lekukotasun urri lortuko ditugula aurreikustera garamatza, baina ikus ditzagun emaitzak.

Hiztunek itzuli behar izan dituzten perpausak honako hauek dira:

Aqui no hay nada que hacer

Ahi viene el alcalde con su hija.

Honakoak izan dira lortutako emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /emen/ /or/ (Erandio); /amen/ /or/ (Larrabetzu); /amen/ /or/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /emen/ /or/ (Erandio); /emen/ /or/ (Larrabetzu); /amen/ /or/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /amen/ /or/ (Erandio); /emen/ or/ (Larrabetzu); /emen/ /or/ (Zamudio).

Larrabetzuko hirugarren belaunaldiko hiztunak eta Erandioko hirugarrenekoak lehen mailako erakuslean gehitu duten “a-” salbu, ez du ematen ezaugarria bizi-bizirik dagoenik Txorierrin. Gainera, lehen mailako erakusletik kanpo, ez du ez batak eta ez besteak “a-” txertatzen. Horrek adieraz dezake, hitz hori nolabait lexikalizatuta daukatela eta ez dutela hala egiten aztergai dudan ezaugarri morfologikoa barneratuta daukatelako, hitz hori (eta ez gainerako erakusleak) lexikalizatuta daukatelako baizik.

Itzulpen bidezko ariketatik kanpoko solasaldi librean, ez dira asko izan hiztunek erabili dituzten lekuzko aditzondoak; beraz, ezin daiteke ehunekoen taularik atera ezaugarri honekin.

Berezitasun modura, esan dezadan Erandioko lehenengo belaunaldiko hiztunaren jardunean honako perpaus hau jaso nuela:

“Hamen, etxen, jaió nintzan ni.”

Ikus daiteke, perpaus honetako lekuzko aditzondoak aztergai dugun “a-” duela txertatua; hala ere, beste birritan erabiltzen du lehen mailako lekuzko aditzondoa, eta baten ere ez du “a-” gehitzen... Pentsa daiteke, bada, txandakatzea oposaketan dagoela belaunaldi zaharretan, “a-” gehi gabeko formaren aldeko neutralitze bidean.

4. Norabide adlatiboa adierazteko modua

Gamindek (2007) sei multzotan sailkatu zituen Bizkaiko herriak, adlatibo direktiboa (norantz kasua) egiteko duten moduaren arabera: *-rantza / -rantza* edo *-rantz / -ra(n)tz / -rantz* edo *-runtz / -ru(n)tz / -rutza* (Gaminde, I., 2007, 91).

Hala, Txorierriko herri guztiak lehen multzoan sartu zituen; *-rantza* norabide adlatiboa darabilten herrien multzoan, alegia.

Ezaugarri horrek bere horretan dirauen ikusteko, honakoak dira hiztunek gaztelaniatik itzuli behar izan dituzten perpausak:

*Quando ibamos **hacia la iglesia** nos empezo a llover.*

*¿**Hacia donde** tenemos que ir ahora?*

Honako hauek izan dira lortutako emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /eliserantsa/ /norantsa/ (Erandio); /elisarantsa/ /norantsa/ (Larrabetzu); /eliferantsa/ /norantsa/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /eleisarantza/ /norantsa/ (Erandio); /elisarantsa/ /norantsa/ (Larrabetzu); /eliserantsa/ /norantsa/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /eliserantsa/ /norantsa/ (Erandio); /-/ /norantsa/ (Larrabetzu); /elisarantsa/ /norantsa/ (Zamudio). Larrabetzuko hiztunak *elizara bidien* erabili du gaztelaniazko *hacia la iglesia* itzultzeko; beraz, norabide adlatiboaren erabilera erakusten ez duen arren, aldakortasunaren isla da lekukotasun hau.

Ikus daitekeenez, ezaugarria ez da aldatu ez Gaminderen (2007) ikerketatik hona, eta ez ikerketa honetako lehenengo belaunaldiko hiztunetatik hirugarren belaunaldikoetara. Herri batetik bestera edo belaunaldi batetik bestera hitzaren erroa aldatuagatik ere (*eleiza* vs. *eliza*), adlatiboa egiteko moduari eusten diote hiztun guztiek.

Itzulpen bidezko ariketatik kanpoko solasaldian, ez dira asko izan norabide adlatibo kasuak. Baina egon diren apurretan ez da espero den araua hautsi.

5. Artikulu hurbila

Artikulu hurbilak bizirik irauten du mendebaldean. Dena dela, berbeta batzuetan oso galdua dago. Hizkera batzuetan, fosildu antzean geratu diren adibide batzuetan baino ez da erabiltzen: *biok, denok, zuok* ...

Ezaugarri honen bilakaera edo irautea frogatzeko, honako perpaus hauek itzuli behar izan dituzte hiztunek:

Todos tenemos que hacer algo.

Ellos han llegado primero.

En estos días esta haciendo mucho calor.

Honakoak izan dira lortutako emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /danok/ /-/ /onetan egyunatan/ (Erandio); /danok/ /eurok/ /onetan eyunetan/ (Larrabetzu); /danok/ /-/ /onetan eyunotan/ (Zamudio). Erandioko eta Zamudioko hiztunek *árek* erabili dute gaztelaniazko *ellos*

itzultzeko; beraz, haien emaitzek ez dute plural hurbilaren lekukotasun gisara balio.

- Bigarren belaunaldia: /denok/ /-/ /-/ (Erandio); /danok/ /eurok/ /onetan eyunetan/ (Larrabetzu); /danok/ /eurak/ /onetan eyunetan/ (Zamudio). Erandioko hiztunak *aiek* erabili du gaztelaniazko *ellos* itzultzeko; beraz, haren emaitzak ez du plural hurbilaren lekukotasun gisara balio. Gainera, *en estos dias* itzultzeko *egun hauetan* erabili du; horrek ere, beraz, ez digu balio.
- Hirugarren belaunaldia: /danok/ /eurok/ /onetan eyunetan/ (Erandio); /danok/ /eurak/ (Larrabetzu); /danok/ /-/ /onetan eyunotan/ (Zamudio). Zamudioko hiztunak *aretxek* erabili du gaztelaniazko *ellos* itzultzeko; beraz, haren lekukotasunak ez du plural hurbilaren lekukotasun gisara balio.

Ikus daitekeenez, emandako adibide guztiak plural hurbilari dagozkio. Hala ere, badago singular hurbilik aurkitzea ere. Errepara diezaiogun Euskaltzaindiak artikulua hurbilaren erabilera eremuaz dioenari:

Hurbiltasuna adierazi nahi denean erabiltzen da, eta *-o-* artikulua da horren adierazpidea. Ni edo gu aurkitzen garen (edo zu/zuek zareten) multzoa da betiere hurbiltasunaren erreferentzia, hala ni/gu talde barnean gaudelako, nola aipagai dugun taldea aurrez aurre dugulako. Plural hurbila ez ezik *singular hurbila* ere aipatzen da gramatiketan, bizkaierazko testuei dagokienetan bereziki (Euskaltzaindia, *Zalantza argibideak*).

Ikerketa honetako hiztunek nekez darabilte artikulua hurbila. Itzulpen bidezko ariketa bideratuan, gutxi izan dira gaztelaniazko esaldiak artikulua hurbila baliatuz erabili dituztenak eta are gutxiago solasaldi librean topa ditzakegun lekukotasunak:

Eurok ekarten seuren ... (Larrabetzu, 3. belaunaldia).

Aditzaren morfologia

1. Ibili eta izan aditz trinkoen pluralgilea

Ibili aditza pluralgile birekin agertzen zaigu “z” eta “tzaz/tzez”ekin. (Gaminde, 2007. 114).

Izan-en sailean adizki bereziak daude mendebaldean. Singularreko *nintzen* eta *hintzen* adizkien oihartzunera, pluralean ere *-tze-* erro hori dutenak sortu dira: ‘ginen’ >

gintzen/gintzesen. Ikusten denez, *gintzen* eta *zintzen* adizki berriez gainera, *gintzezen* eta *zintzezen* ere erabiltzen dira, -z pluralgilea gehituta.

Gamindek (2007) egindako bereizketan, honela sailkatu zituen Txorierriko herriak: Larrabetzu, “z” pluralgilea erabiltzen dutenen artean; Lezama, “z” zein “tzaz/tzez” erabiltzen duten herrien artean; gainerakoak, “tzaz/tzez” erabiltzen dutenen multzoan.

Emandako informazioa oinarri hartuta, ikus dezagun abiapuntuko datuak egungo hiztunen ezaugarrien erakusle diren.

Honako hauek izan dira ezaugarri hau aztertzeko hiztunek itzuli behar izan dituzten perpausak:

*En la última época **andan** bastante perdidas.*

*Nosotros **éramos** muy jóvenes pero me acuerdo de todo.*

Honakoak izan dira hiztunek emandako emaitzak:

- Lehenengo belaunaldia: /daβiltses/ /gintsen/ (Erandio); /daβiltses/ /ginen/ (Larrabetzu); /daβiltses/ /gintsen/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /daβiltsa/ /gijnen/ (Erandio); /daβils/ /isen ginen/ (Larrabetzu); /daβis/ /gintsen/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /daβiltses/ /gintsen/ (Erandio); /dabis/ /gintsezan/ (Larrabetzu); /daβils/ /gintsezan/ (Zamudio).

Itzulpen bidezko ariketa bideratutik kanpo ere sarritan ageri dira *izan* eta *ibili* aditzen trinkoak. Ikus dezagun zenbatetan betetzen den *tzaz/tzez* morfemaren erabilera.

<i>TZAZ/TZEEZ</i> MORFEMAREN ERABILERA	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	%94	%71	%97
2. belaunaldia	%13	%86	%72
3. belaunaldia	%87	%83	%59

6. taula. *Ibili* eta *izan* aditzetako *tzaz/tzez* pluralgilearen erabilera

Ikus daitekeenez, ezaugarriak toki esanguratsua dauka Txorierrin belaunaldi guztietan. Hala ere, belaunaldi gazteagoetan ehunekoak behera egiten du, zertxobait. Kasu hauetan, *tzaz/tzez* erabiltzen ez dutenean, hiztunek batuzko edo bizkaiera jasoko aditz-forma darabilte. Hala, esan daiteke euskara batuak edo bizkaieraren estandarrik nolabaiteko zeresana dutela ezaugarri honen lausotzean.

2. Nor-nork 3. pertsona pluraleko aditz-laguntzailearen forma

Edun-en adizkien erroan *-o-*, *-au-* eta *-eu-* agertzen dira mendebaldean (Zuazo, K. & Goiti, U, 2016. 40). Hala, forma hauek topa genitzake: ‘dute’ > *daure/daude/deure*.

“*haiek-hura*” adierazteko era batzuk dauzkagu (*dabe, dabie, daue, deurie, daude*, e.a.). Badirudi, morfema bi dautzala honen guztiaren azpian, “e” eta “de” hain zuzen; gainerakoak, aldaketa fonetikoak dira. (Gaminde, I., 2007. 123)

Gainera, adituak “de” morfema darabilten hizkeren artean kokatzen ditu Txorierriko herri guztiak.

Honakoak izan dira ezaugarri honen azterketarako hiztunek itzuli behar izan dituzten perpausak:

*Ellos no **quieren** venir a comer.*

*Mis hijos no **han terminado** las tareas.*

***Han traído** cinco bueyes de Larrabetzu.*

Lortutako emaitzak honakoak izan dira:

- Lehen belaunaldia: /deure/ /deure/ /dituse/ (Erandio); /deure/ /deure/ /ditues/ (Larrabetzu); /deure/ /deures/ /deures/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /dute/ /dute/ /dituzte/ (Erandio); /deude/ /deude/ /ditues/ (Larrabetzu); /deure/ /deures/ /deure/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /daße/ /deures/ /deures/ (Erandio); /deure/ /ditues/ /ditues/ (Larrabetzu); /daße/ /ditues/ /ditue/ (Zamudio).

Itzulpen bidezko ariketa bideratutik kanpoko solasaldian, ugariak dira aztergai ditugun adizkera hauen lekukotasunak. Taulan bildu ditut lekukotasunetan, hiztunek “*de*” errodun forma darabilten ehunekoak:

<u>“DE” ERROA NOR-NORK</u> <u>3. PERTSONA</u>	ERANDIO	LARRABETZU	ZAMUDIO
1. belaunaldia	%89	%86	%94
2. belaunaldia	%27	%82	%78
3. belaunaldia	%93	%86	%63

7. taula. “*de*” morfemaren erabilera nor-nork, 3. pertsona

Oro har, “*de*” erroa nagusi den arren, *ditue/dituez* formak ere sarri erabiltzen dituzte hiztunek.

3. Nor-nork 1. pertsonako iraganeko aditz laguntzaileen forma

Edun saileko adizki batzuetan bereziak dira iraganaldiko 1. pertsonako adizkiak: singularrean *nendun* (eta *neun*, *neuen*, *nun*) ‘nuen’; pluralean *nendus* (eta *neusen*, *nusen*) ‘nituen’. Analogiaz sortutakoak dira: *guk gendun*, *zuk zendun*, *zuek zenduen* esaten denez, hortik atera da *nendun* eta, singularreko horri -z pluralgilea gehituta, *nendus*. Adizki horiek ez dira oraintsu sortutakoak: *nenduá* ‘nuen’ agertzen da Rafael Mikoleta bilbotarraren 1653ko ikasbidean (Zuazo, K. & Goiti, U., 2016. 40).

“*Nik*” subjektua denean, iraganean morfema bi agertzen zaizkigu “*n-*” (*neban*, *neuen*) eta “*nend-/nind*” (*nendun*, *nindun*), herri batzuetan biak erabiltzen dira. Badirudi “*nend-*” pluralaren adizkiekiko analogiaz sortu dela; leku batzuetan “*n-*” erabiltzen da sarrien eta “*nend-*” noizean behin baino ez da erabiltzen; beste batzuetan, oster, aldaketa guztiz burututa dago honezkero.

“*Guk*” subjektua denean, iragana aldiko adizkiak egiteko lehen aldikoei “*-n*” gehitzen zaie leku batzuetan. Horiek aparte utzita, gainerakoetan “*nd*” (*gendun*, *gindun*), “*ñ*” (*geñun*, *gaiñun*) edo “*n*” (*genun*) agertzen dira; leku batzuetan era bat baino gehiago dago (Gaminde, I., 2007. 125)

Lehen pertsona singularreko subjektua duten adizkiei dagokienez, Gamindek (2007) “*n-*” erabiltzen duten herrien multzoan sartu zituen Larrabetzu eta Lezama;

“nend-” erabiltzen duten herrien multzoan Erandio, Sondika eta Loiu; eta, biak erabiltzen dituzten herrien multzoan, Derio, Leioa eta Zamudio.

Lehen pertsona pluraleko subjektua duten adizkiei dagokienez, aldiz, Txorierriko herri guztiak sartu zituen “nd” erabiltzen duten herrien multzoan.

Honako hauek dira hiztunek, ezaugarri honen azterketarako, itzuli behar izan dituzten perpausak:

*Antes solia **tener** miedo.*

*Hace años, **veía** las estrellas desde el monte.*

*Ayer **vimos** un burro muerto.*

*La semana pasada **trajimos** a los niños a comer.*

Honakoak izan dira hiztunek emandako itzulpenak:

- Lehenengo belaunaldia: /nendun/ /neusen/ /gendun/ /gendusen/ (Erandio); /neun/ /neusen/ /ginun/ /gindusen/ (Larrabetzu); /nedun/ /nendusen/ /gendun/ /gendusen/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /nuen/ /nituen/ /gendun/ /gendusan/ (Erandio); /neun/ /neusen/ /gendun/ /gendusen/ (Larrabetzu); /neβan/ /neβasan/ /gendun/ /gendusen/ (Zamudio). Zamudioko hiztunak zalantza eduki zuen bigarren perpausako aditza (*veía*) itzultzean; *nebas. an* esaten hasi zen baina tartean etena egin eta *nendusan* esan zuen. Berriz pentsatu eta lehenengoan *nebasan* esan zuenez halaxe itzuliko lukeela berretsi zuen. Kontuan hartzekoa da, hiztunei (batez ere euskaraz alfabetatu direnei) etxeko euskara egin zezatela eskatu niela, ariketa ondo egiteko ikasitako arauari bueltaka has zitezkeen beldurrez. Beharbada, horrek nolabaiteko desoreka sortu die etxean modu batean eta euskara mintzagai den testuinguruetan (euskaltegia edo elkarrizketa bera kasu) bestelako moduan egiten dutenei. Azken finean, elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak elkar ez ezagutzeak lausotu egin baitezake bilatu ohi den egoera ez-formala (ikus. 8. or. *Behatzailearen paradoxa*).

- Hirugarren belaunaldia: /nendun/ /nendusin/ /gendun/ /gendusin/ (Erandio); /nendun/ /neβasan/ /gendun/ /gendusan/ (Larrabetzu); /nendun/ /nendusin/ /gendun/ /gendusan/ (Zamudio).

Esan daiteke, bada, joera orokorra nolabait badirauela eta hiztunek barneratuta dutela ezaugarri hori; hala ere, ezin ukatuzkoa da euskara jasoak (bizkaierazkoak zein batuak) eragina izan duela aditz laguntzailearen bilakaeran.

Ez dira asko hizketaldi librean batutako lekukotasunak. Hala ere, pentsatzekoa da hiztun gehienek Txorierrikotzat hartzen den ezaugarria zein besteren bat (bizkaierazkoa baina “nd” ez daukana) irizpide zehatzik gabe erabiltzen dizutelala. Hau ziurtasunez esateko, noski, ikerketa honetako laginetan jasotakoa baino gauzatze gehiago behar dira. Baina horren adibide xumea dugu honako hau:

- *Lengo egunen **ekar nitusen** arek tomatek es euen euki saporeripes.* ‘Lehengo egunean ekarri nituen tomate haiek ez zuten batere zaporerik’.
- *Nik soloko bearrak **iten neusen** eta nire lengusine plazara joten san saltzen.* ‘Nik soloko lanak egiten nituen eta nire lehengusina plazara joaten zen saltzen’.

Emandako perpaus biak Erandioko lehenengo belaunaldiko hiztunaren lekukotasunak dira. Nabarmentzekoa da perpaus baten eta bestearen artean minutu erdi inguruko tartea ez dagoela eta gai berberaz ari dela hiztuna. Alegia, ez du itzulpen bidezko ariketan esaldi baten edo bestearen gauzapena baldintzatu (hori gerta bailiteke perpaus bien artean ariketa egongo balitz); edo perpaus baten eta bestearen artean ez da galderarik egon (galderaren batean entzundako aditzak bere ondorengo gauzatzea baldintza balezake).

4. Zehar galderaren forma

Zehar galdera mota bi bereizten dira Bizkaiko euskaran, oinarrian datzan galdera motaren arabera. Galdetzailearekin egiten direnak, *n/z* galderak, “-n” menderagailuarekin egiten dira beti eta menderagailu barik egiten diren oinarriko galderekin hiru aukera daude. Batean “*ba-*” menderagailuarekin egiten da, beste batean “-n” menderagailuarekin eta hirugarrenean menderagailu biak batera erabilia (Gaminde, 2007. 146).

Txorierriko herri guztiak zehar galdera “ba-” menderagailua erabilia sortzen duten herrien multzoan sartu zituen ikertzaileak.

Honakoak izan dira hiztunek ezaugarri hau aztertzeko itzuli behar izan dituzten perpausak:

*No se **si** lloverá mañana.*

*Me preguntó **si** tenía dinero.*

Honakoak izan dira hiztunek emandako itzulpenak:

- Lehenengo belaunaldia: /badeu/ /badekot/ (Erandio); /badeu/ /badekot/ (Larrabetzu); /badeu/ /badekot/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /badeu/ /badaukat/ (Erandio); /badeu/ /badekot/ (Larrabetzu); /badeu/ /badekot/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /badeu/ /dekoten/ (Erandio); /deuen/ /neukon/ (Larrabetzu); /deuen/ /dekoten/ (Zamudio).

Ikus daitekeenez, hirugarren belaunaldiko hiztunek (Erandioko hiztunaren lehenengo esaldiaren itzulpenak izan ezik) ez dakarte “ba-” aurrizkiaren zantzurik. Aurreko belaunaldietan, baina, erabat errotua dagoen ezaugarria dela esan daiteke. Horren seinale argia da Erandioko bigarren belaunaldiko hiztunaren ariketa: hizketaldi osoan zehar batuzko ezaugarri gehien dituen hiztuna da zalantza izpirik gabe; eta hala ere ezaugarriari eusten dio.

Sintaxia

1. -keran

Bizkaiko bereizgarria da denborazko perpausetako *-keran* morfema. Txorierrin oso errotuta dago eta sarri erabiltzen da. (Zuazo, K. 2016. 52).

Honakoak izan dira hiztunek ezaugarri hau aztertzeko itzuli behar izan dituzten perpausak:

*Se quemó la mano **al** tocar la sartén*

*A la **ida** no se mareó, pero a la **vuelta** sí.*

Honakoak izan dira hiztunek emandako itzulpenak:

- Lehenengo belaunaldia: /ikututen/ /arantsan/ /bueltan/ (Erandio); /ikutukeran/ /yon sanean/ /bueltan/ (Larrabetzu); /ikutukeran/ /yoanean/ /onantsan/ (Zamudio).
- Bigarren belaunaldia: /ikutu suenean/ /yoan sanen/ /bueltan/ (Erandio); /ikututen/ /yoakeran/ /etorkeran/ (Larrabetzu); /ikutu eunen/ /joakeran/ /bueltan/ (Zamudio).
- Hirugarren belaunaldia: /ikutukeran/ /joakeran/ /bueltan/ (Erandio); /ikutukeran/ /joakeran/ /bueltan/ (Zamudio).

Ez da itzulpen bidezko ariketa bideratutik kanpoko solasaldian *-keran* atzizkiaren bestelako lekukotasunik jaso honako bi hauek salbu:

Andik urtekeran karradera baten jon gintzen etxera erropak garbitan.
(Zamudio, lehenengo belaunaldia)

Niri poliok emonsten eta polio emonkeran eskolatik urten biar izan nintzen.
(Larrabetzu, bigarren belaunaldia)

Beraz, pentsatzekoa da erabiltzen dutenean, *-keran* forma erabiltzen dutela eta ez *-eran*, esate baterako; baina bestelako baliabideak ere erabiltzen dituzte.

Lexikoa

Lexikoari dagokionez, lehenik eta behin, esplizituki galdetu nien hiztunei sasoi baten erabili edo entzuten ziren eta gaur egun galdutzat daukaten hitz edo esamolderik bururatzeko zitzairen. Asko egon badaudela erantzun zidaten guztiek baina bat ere ez zidaten proposatu, “boteprontoan” bururatzeko ez zitzaizela argudiatuta.

Hala ere, Koldo Zuazoren eta Urtzi Goitiren (2016) liburuaren amaieran agertzen den *Ipar-sartaldeko hiztegia* ataleko eta Larrabetzuko *Darabilgu* elkarteak egindako *Txorierriko berbak* zerrendako hitz batzuen erabilera antzeman dut solasaldietan.

1. Usigi (‘haginka egin’)

Aurreko “erakusleen bereizketa fonologikoa” aztertzeko erabilitako esaldia erabili dut hitz honen erabilera aztertzeko:

*Este perro le ha **mordido** la oreja al dueño.*

Larrabetzuko hiztunek *ainke egin* erabili dute, hiru belaunaldietakoek. Erandioko hiru hiztunek eta Zamudioko lehen bi belaunaldietakoek *usigi* erabili dute; Zamudioko hirugarren belaunaldiko hiztunak *aginke egin* erabili du.

Hitzaren esanahia hiztun guztiek ezagutzen dute, Larrabetzukoek hitzetan, ez daukate berau erabiltzeko ohitura handirik baina Zamudioko eta Erandioko hiztunek bai (Zamudioko hirugarren belaunaldikoak ere bai).

2. *Koiu* ('hartu')

Hartu. Bizkaiko sartaldeko berba; ipar-sartaldean ere bada. (Zuazo, K. & Goiti, U. 2016: 115). Definizio hori dakar *Ipar-sartaldeko hiztegiak*.

Honako perpaus hau itzuli behar izan zuten hiztunek:

*¿Para qué vas a **coger** el autobús?*

Hiztun guztiek erabili dute *koiu* (*koiko*, *koiuko*) Erandioko hirugarren belaunaldiko hiztunak izan ezik.

Ondorioak

Txorierriko hizkerak baditu berezkoak dituen hainbat ezaugarri; asko oso errotuak eta beste asko galbidean daudenak. Bilakaera edo galera bidean dauden ezaugarrien lausotzea bi faktore nagusiri zor zaie: alde batetik, inguruko hizkerekiko harremanak areagotzeari; eta bestetik, euskara batuaren indartzeari.

Zamudioko zein Larrabetzuko hiztunak, solasaldi librean, herriko bizimoduan haien gazarotik hona atzeman dituzten aldaketez mintzo izan direnean, sasoi bateko egunerokotasunaz eta ohiturez ibili ziren. Herritiko irteerak ondoko herrietarakoak ziren, eta beraz herritarren kanpo-harremanak hizkera antzekodun hiztunek osatzen zituzten. Erandioko lehen belaunaldikoak, aldiz, Erandioko guneko erdaldunetara jotzen zuela azaldu du, “kolegiora” eta, gero, lanera joateko.

Gaztelaniaren eragina orduan ere handia zela kontuan hartuta, euskaldun berrien igoerak izan du herriko euskaretan eragin handiagoa. Horren erakusle argia da Erandioko bigarren belaunaldiko hiztunak emandako hizketaldia: betidanik baserri inguruan ibilikoa eta batuaz alfabetatzen ibilikoa.

Horrenbestez, esan daiteke, euskara batuak eta herrien arteko joan-etorrien hedadurak eragin handia izan dutela Txorierriko euskaran.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Ensunza, A. (2015): *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*,: Vitoria-Gasteiz, UPV/EHUko doktoretza tesi argitaragabea.

Euskaltzaindia: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf

Gaminde, I. (2007): *Bizkaian zehar: euskararen ikuspegi orokorra*,: Amorebieta, Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.

Labayru hiztegia: <https://hiztegia.labayru.eus>

Zuazo, K. (2014): *Euskalkiak*,: Donostia, Elkar.

Zuazo, K. & Goiti, U. (2016): *Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdeko euskara*,: Bilbo, UPV/EHU.